

# Angel Ibisateren hilberri txostena (1932-2020)

MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, Elena  
Euskaltzain urgazlea

Agur, guztioi.

Euskaltzaindikoa kideen artean, ez da oso ohikoa izaten gasteiztar akademiko askorik aurkitzea, eta askoz gutxiago Gerra Zibila baino lehen sorturiko akademiakorik. Bai, jakina, euskara maitatu eta bultzatu dutenak. Eskerrak azken urteotan kopurua handituz doan. Horien artean dugu Angel Ibisate Lozares, euskaltzain urgazle gasteiztarra, apaiza, euskaltzalea, liburuzaina eta ikertzaile nekazina.

Gasteizen jaioa, 1932an, hiriaren bihotzean, Hedegile kaleko Vegako Andra Mariaren bigarren auzune edo bezindadean, *La Corre* deitzen diogun horretan; Gasteizen bertan utzi gintuen 2020ko martxoaren 6an, pandemiaren lehen berriak izan genituen garaitsuan. Gasteiztar peto-pettoa, hortaz. Miel A. Elustondo kazetari eta idazleak Ibisateri egindako azken elkarrizketa, argazkiak lagundurik, argitaratu zuen handik gutxira, martxoaren 21ean, *Berria* egunkarian: Angelek ez zuen ikusterik izan, beraz. Eta heriotzaren zain balego bezala, honako hau galdetu zion Elustondori: «Zein argazki jarriko zenuke zuk, ni hiltzen naizenean?».

Angelengandik belaunaldi-jauziak urruntzen baninduen ere, aldi berean, elkarrekiko maitasunak, errespetuak eta harreman estuak hurbiltzen gintuzten. Ezagutzen zuten guztiek trebetasun eta adimen handiko gizona zela nabarmentzen dute<sup>1</sup>; baita berezia ere.

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiet Gasteizko Apaiztegiko Amaia Gallego eta Santos Ros lagunei, eman didaten informazio guztiagatik.

Oso gazterik hasi zen Gasteizko Seminarioan ikasketak egiten, eta bukatu ere egin zituen, apaiza izateko adina baino bi urte lehenago. Bitartean, Erromara bidali zuten eta Soziologia Eklesiastikoan lizentziatu zen. Baina Doktorego tesia egin gabe Gasteizera itzuli behar izan zuen Peralta gotzainak hala agindurik. Badirudi ez zirela oso adiskide onak.

Zenbait herritan izan zen apaiz: Uribarri Jauregi, Gereñu, Matauku, Ibisate, Areatza eta, haren hitzetan, Sabandora, Mendialdeko herrira, erdi zigorturik bidali zuten, baina zorionez, bere bizitzako urterik zoriontsuena bizi izan zuen han. Ordutik, oso lotua sentitu da Juan Bautista Gamiz poetaren sorlekuari. Behin baino gehiagoan bete du gure arteko solasaldia herri horretako toponimiak.

Hirurogeiko hamarkadaren bukaeran, Gasteizko euskaltzaleen giroa pil-pilean zegoen. Alde batetik, Andoni Urrestarazu, «Umandi», Peli Presa eta Izaskun Arrue (Arabako lehenengo ikastolaren sortzailea, Olabide Ikastola) ari ziren euskara irakasten; eta bestetik, elizaren inguruko mugimenduak, eta haietan murgildu ziren Oñatitik Gasteizko apaiztegira etorri berri ziren gazte euskaldun agustindarrak. Gasteizko apaizgai gazteak erakarri zituzten, eta 1972 inguruan<sup>2</sup>, *Juan Bautista Gamiz* izeneko taldea osatu zuten zenbait euskaltzalek, Eusebio Osa gidari zutelarik. Partaideen artean, Ibisate, Ros, Fontaneda eta beste batzuk izan ziren, euskara ikasten eta irakasten, hala nola mezak euskaraz ematen. Horiek izan ziren AEK Araban sortzeko lehenengo haziak erein zituztenak.

Ibisatek beste esparru batzuetan ere parte hartu zuen hirurogeita hamarreko hamarkadan, Gasteizen bizi zen giro politiko eta sozial gorrian, esaterako. 1976an, martxoaren 3an hilketa latzak gertatu ondoren, hileta-elizkizunaren homilia Angelek idatzi zuen. Eta honela adierazi zion Elustondo kazetariari:<sup>3</sup>

Hor bada historia bat oraindik idatzi ez dena... Hileta horrena. Homiliari dagokionez, neuk idatzi nuen. Egun hartan [1976, martxoak 5] apaiz batzar bat egin zen, arratsaldeko meza prestatzeko; homilia, batez ere. Gotzainak, batzarrak prestatutako homilia irakurriko zuela hitz eman zuen. Nik, bezperan, hainbat ordu kendu nizkion loari, neure buruarentzat idazten jardun nuen, nik egoera hartan zer esango nukeen paperean jartzen. Bilkuran, homiliaz ari ginela, bezperan idatzitakoa irakurri nuen denen aurrean. Eta batzarrak erabaki zuen gotzainak [Peralta] huraxe irakurri behar zuela. Eta irakurri zuen, baina aldaketa batzuk eginda [...]. Azkenean, nekez bada nekez, eta geuk behartuta, Peraltak uko egin zion karguari.

<sup>2</sup> Elustondo, M. A., 2005, *Eusebio Osa. Bidegileak*, Vitoria: Eusko Jaurlaritzza.

<sup>3</sup> Elustondo, M. A., *Berria*, 2020ko martxoaren 21ean.

Elizaz eliza ibili ondoren, 1985. urtean, Ángel Ros adiskidearen laguntza estimagarriari esker, Gasteizko apaiztegiko liburutegian leku hartzea lortu zuen, eta orduan hasi zen haren ikerketa-lana. Artxibategiko liburuen artean igaro zituen ondorengo urteak, eta liburutegiko ondarearen ezagutza izugarria lortu zuen, batez ere inkunabileena eta XVI. eta XVII. mendeetako lanena. Gaur egun haren falta sumatzen dute liburutegiko zenbait lanetan.

Zehatza eta zorrotza zen datuen bilketa-lana egiterakoan; idatzi zituen artikulua ez dira oso luzeak izan; bai, ordea, xehetasun handikoak. Haren hitzetan, gauza handirik ez, baina ahal izan duen ekarria egin die euskarari eta euskal historiari. Gustura sentitu zen «Formula del Juramento en Álava en el siglo XVI (El testimonio de Fray Juan de Victoria)»<sup>4</sup> artikulua argitaratu ziotenean. Araban erabiltzen zuten zin egiteko euskarazko esamoldea azpimarratu zuen: «Bai, ziertu [Vay çiertu].»

Iturrien ezagutza handiari esker, beste autore batzuen lanak datu berriez apaindu zituen. Besteak beste, «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiarán de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado»<sup>5</sup> edo «¿Ergoienak alavesas? La Hergoiena salvaterrana. Las Ergoienas de Salvatierra. Nueva luz sobre un texto del P. Kardaberaz»<sup>6</sup> artikulua ezagunak.

Beste lan bitxi batzuk ere aurkitu ditzakegu haren ekoizpenean, betiere lurrari lotuak. Badirudi datu galduen bila aritzea zuela helburu nagusizat, horrela erakusten baitu hainbat artikulutan. Idazlan horiek izenburu luzeen bidez iragartzen digute aurkituko dugun mamia. Adibidez: «El moribundo, el cura, el intérprete y la casera. Un dato para la historia del euskara en Álava en el siglo XIX. Apostillas a un documento»<sup>7</sup>, edo «Una bula de difuntos a favor del hospital de Sancti Spiritus de San Adrián, impresa a principios del siglo XVI»<sup>8</sup>. Horietan argi utzi nahi izan

---

4 Ibisate Lozares, A., 1985, «Fórmula de juramento en euskera en Álava en el siglo XVI (El testimonio de Fray Juan de Victoria)», *Scriptorium Victoriense*, 32, 433-442.

5 Ibisate Lozares, A., 2001, «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiarán de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado», *Euskera*, 46-2, 783-803.

6 Ibisate Lozares, A., 2008, «¿Ergoienak alavesas? La Hergoiena salvaterrana. Las Ergoienas de Salvatierra. Nueva luz sobre un texto del P. Kardaberaz», *Euskera*, 53-2, 281-295.

7 Ibisate Lozares, A., 2002, «El moribundo, el cura, el intérprete y la casera. Un dato para la historia del euskara en Álava en el siglo XIX. Apostillas a un documento», *Sancho el Sabio*, 17, 183-196.

8 Ibisate Lozares, A., 2000, «Una bula de difuntos a favor del hospital de Sancti Spiritus de San Adrián, impresa a principios del siglo XVI», *Sancho el Sabio*, 12, 220-230.

zuen, datuak berrikusiz ondorio berriak atera zitezkeela Arabako lurretan euskarak izan duen iraupenari buruz.

Zergatik ekin zion euskara ikasteari Angel Ibisatek, ez dugu inoiz jakingo. Honako hau adierazi zion Elustondori: «Inoiz ez diot inori esan, eta ez diot esango. Eta idatzita ere ez dut utziko, ez dezan inork testamentutzat hartu. Ez dut esango. Nire sekretua izango da, betiko».

Halere, eta arrazoiak arrazoi, Angel Ibisatek gure lurra eta hizkuntza biziki maite zituela garbi adierazi zuen. Agur Angel, zuk egindako bideari jarraituko diogu. Bai, ziurtu!